04. Hiria eta hiri-tokiak

1. Sarrera. Hiri-espazioaren sorrera eta haren elementuak (Juli Esteban Nogueraren arabera):
    - Hiriak lurraldea eraldatuz sortzen dira, lurraldea urbanizatuz, alegia, URBANIZAZIOA delako prozesuaren bidez. Prozesuaren gakoa publiko eta pribatu kategorien sortzean datza.
    - Landa-espazioa: Bereizi gabea, publiko-pribatu kategoriei dagokionez. Bideak eta ibaiak ezik, jabego pribatuko espazioez osatua dago. Jabegoen pribatutasuna, hala ere, "ahula" da (ez daude hesituak, haien artean igaro daiteke).
    - Hiri-espazioa: Era argian bereizia dago bi jabaritan: publikoa (kaleak, plazak eta bestelako espazio publikoak) eta pribatua (orube eraikigarriak, hau da, espazio partzelatua). Orubeon jabegoen pribatutasuna "sendoa" da (itxitak daude, sarbidea ez da librea). Kaleak, plazak eta bestelako espazio publikoak, aldiz, erabat publikoak dira.
    - Hortaz, urbanizazio prozesuak lurzorua bi kategoriatan banatzen du: Espazio publikoak (jarraituak direnak eta hiri-espazioaren "hutsa" direnak) eta espazio partzelatuak (zatikatuak direnak eta hiri-espazioaren "betea" direnak). Espazio partzelatua pribatua da, bertan ematen den jarduera publikoa edo pribatua gorabehera. Espazio publikoak eta partzelatuak kategoria osagarriak dira: bataren zedarritzeak bestearen mugatzea dakar. Biak kontutan hartu beharko dira hiri-antolakuntza egokia lortzeko.
    - Hiri-ehundura edo hiri-sarea hiriko zati baten morfologia da, urbanizazio prezesuaren emaitza dena. Bata bestetik bereizten da espazio-publikoak ("kaleak") eta espazio partzelatuak ("etxeak") antolatzeko moduan. Hiri-ehundura edo hiri-sarea hainbat formatakoa izan daiteke: erregularra edo irregularra, espontaneoa edo proiektatua, ordenatua edo desordenatua, homogeneoa edo heterogeneoa…
2. Urbanizatze-prozesua eragiten duten hiru ezaugarriak, ingurune fisikoa gorabehera (J. Estebanen arabera):
    - Bidegurutze bat egotea. Adibidea: Altsasua eta Irurtzun.
    - Eraikin esanguratsu bat egotea: komentua, gaztelua, jauregia… Adibidea: Bagdad Al-Mansurren jauregiaren inguruan sortzen da, 762-767. urte-tartean.
    - Kale-sare bat proiektatzeko nahia edo borondatezko ekintza. Adibidea: Tehotihuacan, Mexiko, III-VI. mendeetan.
3. Ingurune fisikoa edo topografiaren eragina hiriaren forman eta kokagunean (Spiro Kostofen arabera):
    - Hiria ibai bazterrean. Adibidea: Iruñea (Arga ibaia; Pompaelo erromatarra; Nabarreria eta San Cernin eta San Nikolas burgoak).
    - Hiria itsaso bazterrean. Adibidea: Donostia (La Mota gaztelu nafarra, XII. mendekoa; bretxa).
        i. Hiria ibai bazterrean, itsasotik gertu. Adibideak: Baiona eta Bilbo.
    - Hiria defentsa-toki gisa. Adibidea: Antoñana (Araba).
    - Hiria gailur lineal gisa. Adibidea: Gasteiz; Guardia.
    - Hiria muinoaren gailurrean. Adibidea: Urizaharra (Araba); Ausejo (Errioxa).
    - Hiria lur maldatsuan. Arabako Añana-Gesaltza (maldaren "alde"); San Francisco (maldaren "aurka").